

# **MINBIZIAREN AURKAKO ESPAINIAKO**

## **ELKARTEA:**

### **LAB AECC 2017 DEIALDIA**

#### ***Helburua:***

Deialdiaren helburua gorabideko taldeei laguntzea da haien ikerketa lerroak finkatzeko. Horretarako, gorabideko taldeetat hartzen dira ikerketa lerro aske bat hasi ondoren 5 urte artekoak, haien produkzio zientifikoak eta/edo finantzatutako proiektuek egiaztatuta. 5 urteko epea proiektua esleitzeko unera arte (2017ko ekaina) zenbatuko da.

#### ***Proiektuen ezaugarriak:***

- Proiektuek orientazio translazionala izan beharko dute, eta oinarritzko ikerketa oinarri sendo bat egon behar da. (oinarritzko onkologiatik, translazionaletik azterketa klinikoetara doazen azterketak).
- Ikertaldean arteko lankidetzaren ahalbidetzea da.
- Proiektuek 3 urteko iraupena izango dute.
- Zuzkidura 300.000 euro gordinekoa izango da, 100.000 euro gordin urteko.

#### ***Ikertzaile nagusiaren (IN) baldintzak:***

- Doktore titulua izatea.
- Lotura UPV/EHUrekin, edo horrelakorik ezean, laguntza eskatzen denetik gehienez 6 hileko epean lotura hori izango duela erakusten duen ebidentzia aurkeztea. Kontratuak laguntza eskatzen denetik urtebeteko iraupena izan beharko du gutxienez.
- Gorabideko talde bateko ikertzaile nagusi aske bat dela frogatzea, eta horretarako hau izan beharko du:
  - Artikulu onartu bat (laguntza eskatzeko unean) aurkeztutako proposamenaren ikerketa lerro berean, lehen edo azken sinatzaile gisa, eta/edo
  - Ikerketa lerro berean norgehiagoka deialdi batean emandako ikerketa proiektu bat.

#### ***Bateraezintasunen erregimena:***

- Laguntza hau ez da bateragarria AECC Fundazio Zientifikoak emandako beste edozein laguntzarekin. Salbuespena izango dira AECC Ideiak laguntza (Hazi Ideiak modalitatea) edo AECCren Batzorde Probintzialen batena, deialdira jotzeko unean indarrean dena.
- Aurreko deialdietan onuradun izan diren pertsonen eskaera aurkez dezakete deialdi honetan.
- Laguntza hau bateraezina da xede berera bideratutako finantzaketa publiko edo pribatuko beste iturri batekin.
- Deialdi honetan proposamen bakarra aurkez daiteke. Hautagaitza hurrengo deialdietan aurkez daiteke berriz, baldin eta aurkeztutako proiektuan eta/edo ikertaldean aldaketak egin badira.

***Proiektuari egoztekoak diren gastuak:*** Kontsultatu "Proiektuari egoztekoak diren gastuak" dokumentua.

**Eskaerak aurkezteko epea:**

2017ko urtarrilaren 17a 15:00etan

2017ko urtarrilaren 9a (barne)	I. eranskina bidaltzea proposatutako langile zerrendarekin. Eranskina <a href="mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus">convocatorias.dgi@ehu.eus</a> helbidera zuzenduko da, mezuaren gaiari "LAB AECC" adierazita.
2017ko urtarrilaren 12a (barne)	Proiektuaren memoria beteta bidaltzea, Ikerketaren arloko Errektoreordetzan Emaitzak dibulgatzeko eta komunikatzeko planaren c) atala bete dadin. Memoria <a href="mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus">convocatorias.dgi@ehu.eus</a> helbidera zuzenduko da, mezuaren gaiari "LAB AECC" adierazita.
2014ko urtarrilaren 17a	<b>ESKAERAK AURKEZTEKO EPEAREN AMAIERA.</b>

**Eskaerak aurkezteko modua:**

Eskaerak AECC Fundazio Zientifikoaren web plataformaren bidez aurkeztuko dira: <https://fundacioncientifica.aecc.es/login>

**Harremana AECC Fundazio Zientifikoan:**

Tel.: 91 310 82 54

e-maila: [fundacion.cientifica@aecc.es](mailto:fundacion.cientifica@aecc.es)

**Harremana UPV/EHU:**

Tel.: 94 601 80 08

e-maila: [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus)

**Informazio gehiago:**

<https://fundacioncientifica.aecc.es/tramites/TR0000000846>